

1. BALIO PROPOSAMENA

Ezugarriak:

6-9 urte bitarteko haur askok ikaskuntza-zailtasunak dituzte (TDAH, TDA, dislexia, TEL, disortografia, disgrafia, gaitasun handiak eta zailtasun emozionalak), eta ez dute nahikoa material egokiturik, ezta eskolan ezta etxean.

Horrek eragin zuzena du haien motibazioan, arreta-gaitasunean eta autoestimuan.

Gure proiektuak arazo hori konpontzen du, hezkuntza inklusiborako baliabide praktiko eta dibertigarriak eskainiz, haurrek beren erritmoan ikasteko.



Gure produktua ez da liburu soil bat, baizik eta hiru ataleko tresna integrala:

- 1 Ipuina → Haur bakoitzaren errealitatera egokitutako istorioak, emozioak eta arreta lantzeko.
- 2 Jarduera praktikoak → Arreta, ulermena eta autorregulazioa lantzeko ariketa multisentsorialak.
- 3 Gida didaktikoa → Irakasle, familia eta hezitzaileentzat, egokitzapenak egiteko orientabideekin.

KUALITATIBOA

Diseinu bisual eta irisgarria, tipografia eta kolore egokituak; hizkuntza sinplea eta motibatzailea.

BERRITZAILEA

Ipuin-formatuan oinarritutako material inklusibo integratua.

PERTSONALIZAZIOA

Kolektibo bakoitzari egokitutako edizio espezifikoak. Etorkizunean haur bakoitzari egokituta.

ERABILERRAZTASUNA

Baliabide bateratua familientzat eta irakasleentzat; erabilera autonomia + gidatua.

BALIO BIKOITZA



Seme-alaben garapena eta arreta hobetzeko tresna eraginkorra da.



Irakasleek eta hezitzaileek eguneroko jardunean laguntza profesional gisa erabil dezakete.

